



GIZARTE SEGURANTZAREN  
DIRUZAINZA OROKORRA



ITSASOKO  
GIZARTE-INSTITUTUA

## Informazio gehiago:

Web-orria:  
<https://www.seg-social.es>

Egoitza elektronikoa:  
<https://sede.seg-social.gob.es>

Telefono bidezko arreta:  
901 50 20 50

## LANEKO, MIGRAZIOETAKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO MINISTERIOA

Argitalpen hau lehengo Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren argitalpen-programan dago jasota, eta Laneko, Migrazioetako eta Gizarte Segurantzako Ministerioak (ekainaren 6ko 355/2018 Errege Dekretua) editatu du.



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE TRABAJO, MIGRACIONES  
Y SEGURIDAD SOCIAL

SECRETARÍA DE ESTADO  
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



INSTITUTO SOCIAL  
DE LA MARINA

Portal Web



GIZARTE SEGURANTZAREN  
DIRUZAINZA OROKORRA



ITSASOKO  
GIZARTE-INSTITUTUA

## ITSASOKO LANGILEEN ERREGIMEN BEREZIKO NORBERAREN KONTURAKO LANGILEAK

Red Sistema  
Administrazio Elektronikoa  
eta Jakinarazpen Telematikoak



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE TRABAJO, MIGRACIONES  
Y SEGURIDAD SOCIAL



SECRETARÍA DE ESTADO  
DE LA SEGURIDAD SOCIAL

INSTITUTO SOCIAL  
DE LA MARINA

## RED SISTEMAREN, ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ETA JAKINARAZPEN TELEMATIKOEN ABANTAILAK

- **Une** oro erabilgarri, edozein lekutatik, urteko **365 egunetan, 24 orduz**.
- **Denbora aurrezten da**, ez dagoelako joan-etorrikerik egin beharrik, ezta txanda gorde beharrik ere.
- **Gailu mugikorrek eta** Interneteko kanalarekin izandako esperientzia aprobetxatzen du, **Gizarte Segurantzarekin egin beharreko tramiteak modu arin**, erraz eta intuitibo batean egin ahal izateko.
- **Gestioak azkarrago egiteko** aukera ematen du, baita **segurtasun-maila** handiagoa eskaini ere.

## 2018ko urriaren 1etik

### aurrera, Itsasoko Langileen

Erregimen Bereziko lehen kotizazio-taldeko norberaren konturako langileak ere behartuta daude RED Sistema erabiltzera.

Bigarren eta hirugarren taldeetakoentzat, aldiz, RED Sistema erabiltzea borondatezkoa da.

## ZURE IZAPIDEAK BIDE ELEKTRONIKOTIK EGITEKO, BI KANAL ERABILI AHAL DITUZU:

- **RED** Sistema (datuak elektronikoki igortzeko sistema).
- **Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa** (SEDESS)

## RED SISTEMA:

RED Sistemara bi modutan sar daiteke:

- Gizarte Segurantzaren web-orritik (<https://www.seg-social.es>).
- Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikotik (<https://sede.seg-social.gob.es>): RED Sistema/Likidazio Zuzeneko Sistema esteka sakatuta, zeinak Gizarte Segurantzaren web-orriarekin lotzen baitu.

RED Sistemara sartzeko, ziurtagiri digitala behar da, eta baimen-eskaera (FR.101 formularioa) aurretik aurkeztuta izan behar da, nahitaezkoa baita behar bezala baimenduta egotea.

Baimen-eskaera modu presentzialean egin daiteke edo Egoitza Elektronikoko Erregistro Elektronikoa, ziurtagiri digitala edo NAN elektronikoa erabilita.

Gestioak errazteko, RED sisteman baimenduta dagoen pertsona batek bere izenean jardun dezake; orobat, langile autonomo baten Afiliazio-zenbakia esleitzeko edo desesleitzeko kudeaketa-zerbitzuak ere eskuragarri daude Egoitza Elektronikoa.

## Hona hemen 2018ko urriaren 1etik aurrera RED Sistemaren bidez erabilgarri egongo diren zenbait zerbitzu:

- **Itsasoko Langileen Erregimen Bereziko norberaren konturako langileen alta:** Lan-jarduera hasi aurretik alta emateko (gehienez, lanean hasi aurreko 60 egun naturaleko epean).  
Lehen taldeko langile bat izanez gero, kotizazio-oinarria aukeratu ahalko du, baita oinarri hori automatikoki igotzea ere gehieneko oinarria handitzen den portzentaje berean.
- **Itsasoko Langileen Erregimen Bereziko norberaren konturako langileen baja:** Baja emateko jarduera utzi eta hurrengo 3 egun naturaleko epean.
- **Parte medikoak (aldi baterako ezintasuna):** Aldi baterako ezintasunagatiko bajaren, berrespenaren eta altaren parte medikoak GSINi helarazteko.
- **Txostenak eskatzea:** Zerbitzu honen bidez, beste hainbat xehetasun ere eska daitezke: kotizazio-egoera, kotizazio-oinarriak, ordaindutako kuotak eta abar.

## SEDESS

Egoitza elektronikotik Red Sistemara zuzenean sartzeko aukeraz gain, "Itsasoko langileen erregimen bereziko norberaren konturako langileen alta" emateko zerbitzu elektronikoa ere erabilgarri dago Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa (SEDESS), eta, horretarako, eskaerak Erregistro Elektronikoa bidez aurkeztu behar dira.

Itsasoko Gizarte Institutua lanean ari da norberaren konturako langileei online-ko beste zerbitzu batzuk eskaintzeko (gaur egun gainerako langile autonomoek dagoeneko badituztenak); zerbitzu horiek erabiltzeko, ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa edo Cl@ve Iraunkorra Sistemako erabiltzailea eta pasahitza beharko dira (<https://clave.gob.es>).

Online zerbitzu horiek erabilgarri daudenean, emango da horren berri.

Halaber, 2018ko urriaren 1etik aurrera, jakinarazpen eta komunikazio elektronikoa jasotzeko, SEDESS egoitza elektronikoa agertu beharko da, nahitaez:

SEDESS-en, "Jakinarazpen telematikoen kontsulta eta sinadura" zerbitzua daukazu erabilgarri; bertan sartzeko, ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa edo Cl@ve Iraunkorra Sistemako erabiltzailea eta pasahitza beharko dituzu.

**GOGOAN IZAN:  
ZURE HARREMANETARAKO DATUAK  
KOMUNIKATU ETA EGUNERATU BEHAR  
DITUZU INFORMAZIOA ETA  
JAKINARAZPEN-ABISUAK  
JASOTZEKO.**